

MINTEGIA

HAMAR URTE EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN LEGEA ONARTU ZENETIK: BALANTZEA, IBILBIDEA ETA ESANAHI PARTEKATUA

Noiz: Martxoaren 23an, 10:00etatik 13:30era

Lekua: Euskadiko Artxibo Historikoa, María Díaz de Haro, 3, Bilbo

1. Justifikazioa

2016an Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialaren Legea onartu izanak mugarri bat ezarri zuen Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialaren (EHSS) ibilbidean. Lehen aldiz, sektorea positiboki definitu zen lege-mailako arau batean, espresuki gizarte-eragile gisa aitortua eta gizarte-babeseko euskal sisteman egituratzera, indartzera eta parte hartzera bideratutako esparru espezifiko batez hornitua. Legeak, ildo horretan, aurrerapen juridikoa ez ezik, sektorearen nortasunaren eta erakundeen sendotze-puntua ere ekarri zuen.

Legea egiteko prozesuan, gainera, EHSSko sareek eta erakundeek aktiboki parte hartu zuten, eta lagundu egin zuten kontzeptuen konfigurazioan eta elementu berritzaileak txertatzen hainbat arlotan, hala nola elkarrizketa zibilean, lankidetzeta publiko-sozialean edo sektorea sustatzeko eta ezagutzeko tresnetan. Alde horretatik, legea ez zen soilik erakundeek bultzatutako araugintza-ekimen bat izan, baizik eta sektorea artikulatzeko eta elkarrizketa politikorako alde aurreko ibilbide baten emaitza.

Hamar urte geroago, urteurrena bat dator EHSSko Liburu Zurietan ([2015](#), [2020](#) eta [2024](#)) sektoreari buruz jasotako datu sorta historiko batekin. Erreferentzia hirukoitz horri esker, sektorearen bilakaera azter daiteke arau-esparruaren hedapenarekin batera, eta hasierako itxaropenak eta identitate kolektiboan, antolaketa-egituraketan, iraunkortasun ekonomikoan edo elkarrizketa instituzionalean ikusitako aldaketak alderatzen dira.

Mintegia, beraz, atzera begirako partekatua egiteko gune gisa ulertzen da, legeak hamarkada honetan sektorearentzat zer esanahi izan duen baloratu ahal izateko, bai aitorten instituzionalari dagokionez, bai sektorea eta antolaketa finkatzeari dagokionez, bai nortasun kolektiboari eta elkarrizketarako gaitasunari dagokionez: zer aurrerapen ahalbidetu dituen, zer tresna sendotu diren, zer eremuk izan duten garapen partziala eta egindako ibilbidetik zer ikaskuntza atera daitezkeen.

2. Planteamendua

Mintegia elkarrizketarako gune itxia da, legea egiteko eta bultzatzeko prozesuan aktiboki parte hartu zuten sektoreko sare, erakunde eta pertsonekin.

Saioa bi ardatz osagarriren inguruan antolatuko da:

1. Legearen sorrerako esanahia, hau da, sektoreak definizio juridiko propioa eta positiboa lortu zuen unea, aitorpen instituzional esplizitua eta gizarte-babeseko euskal sisteman bere posizioa sendotu zuten solaskidetza- eta lankidetza-tresnak formalizatzea.
2. Legean jasotako alderdien garapen eraginkorra — elkarriketa zibila, lankidetza publiko-soziala, sustapena, plangintzarako eta ezagutzarako tresnak, bermeak —, horiek sektorea indartzen zenbateraino lagundu duten eta oraindik zer eremutan dagoen hobetzeko tarteaz aztertuz.

Elkarriketa errealtate sektorialaren eta 2015, 2020 eta 2024ko Liburu Zurietan identifikatutako erronken bilakaeran oinarrituko da, arau-diseinua eta sektorearen hamar urteotako ibilbide eraginkorra alderatzeko esparru gisa.

3. Helburuak

1. **Legea egiteko prozesua berrikustea eta gogoraraztea**, eta, horretarako, abiapuntuko testuingurua, sektoreak bere eraikuntzan izandako zeregina, egindako ekarpen nagusiak, arau-testuak sartutako berrikuntzak eta 2016an sortutako itxaropenak aztertzea.
2. **Legeak EHSSren aitorpenean eta identitatean duen eragina baloratzeko**, sektorearen definizio partekatua sendotzen, haren legitimitate instituzionala indartzen eta gizarte-eragile gisa duen posizioa indartzen zein neurritan lagundu duen aztertuz.
3. **Legean jasotako alderdi nagusien garapen eraginkorra aztertzea**, hala nola elkarriketa zibila, lankidetza publiko-soziala, sustapen- eta indartze-tresnak edo plangintza- eta ezagutza-mekanismoak, aurrerapen finkatuak eta garapen partzialak identifikatuz.
4. **Sektoreak 2015 eta 2025 artean izan duen bilakaera kontrastatzea**, Liburu Zuriak oinarri hartuta, hamarkadaren hasieran identifikatutako erronkek eboluzionatu duten, aldatu diren edo jarraitzen duten, eta onartutako lege-esparruarekin nola lotzen diren baloratzeko.
5. **Hobetzeko edo garatzeko dauden esparruak identifikatzea**, arau-esparrua eta haren aplikazio praktikoa sendotzen jarraitzek.

4. Programa

10:00. Irekitzea. Urteurrenaren testuingurua eta mintegiaren ikuspegiaren aurkezpena.

10:15. EHSSren Legea eraikitze prozesua. Plana egiten eta bultzatzen parte hartu zuten pertsonen esku-hartzeak.

10:45. Hamar urte perspektiban: sektorearen bilakaera. 2015, 2020 eta 2024ko Liburu Zurietan oinarritutako aurkezpen teknikoak: sektoreak azken hamarkadan izan dituen erronken bilakaera eta egiturazko joerak identifikatzea.

11:15. Coffee-break

11:45. Elkarriketa egituratua: legea praktikan. Elkarriketa moderatua legean jasotako alderdi nagusien inguruan (elkarriketa zibila, lankidetza publiko-soziala, sustapena, etab.).

13:15. Sintesia. Ondorio nagusiak azaltzea.

13:30. Mintegiaren **itxiera**.